

COME E COSA SCRIVERE NELL'EPOCA DEL COLERA
Appunti brevi per una conferenza durante la Settimana basca di Roma 2007

di Laura Mintegi

Vedetta

Tempo fa si diceva che nella letteratura più che raccontare un'avventura era interessante l'avventura stessa di raccontare, cioè, addentrarsi nel mare senza sapere se si arriverà a un porto, perché l'importanza non sta nell'arrivo bensì nel navigare stesso.

L'idea ha un suo fascino, così come ce l'hanno la malinconia, la tristezza e il fallimento. Vagare senza meta come la nave olandese o l'ebreo errante è attraente per chi si vaga senza bussola, giacché è facile l'identificarvisi. Ma difficilmente sarà di aiuto a qualcuno per arrivare a un porto. Tanto meno se non sa da quale porto è partito.

In verità la cosa più importante non è certamente l'arrivo a un porto, né navigare, ma bensì sapere da quale porto siamo partiti, quale è la nostra vedetta, chi è che parla, di chi è la prospettiva del mondo. E' lì che sta l'interesse.

Il romanzo può parlare di qualsiasi cosa. Per fare letteratura impegnata non c'è bisogno di riempire le pagine di azioni e gruppi armati; così per fare letteratura femminile non c'è bisogno di scrivere sulla maternità né sulle mestruazioni. L'autore o autrice può parlare su qualsiasi argomento, in qualsiasi tono, attraverso qualsiasi aneddoto, ma sempre sapendo chi è lei, quale è la sua vedetta. Questo, lo sguardo della scrittrice, rende interessante il lavoro.

La letteratura fedele al proprio sguardo non mente, non dice bugie, pur inventandosi le storie, pur addentrandosi nella fantascienza. La letteratura è finzione ma non è simulacro. E' un'invenzione ma non una bugia. Lo scrittore può immaginare, ma a meno che non inganni se stesso, racconta verità.

La letteratura che dura nel tempo è letteratura che ha cercato la verità, attraverso la ricerca della verità personale dell'autore, senza ingannare se stesso, lasciando da parte la scrittura automatica. Non gli è bastato scrivere soltanto quel che sapeva da prima. Ogni volta che si alza dalla sedia intuisce di aver imparato qualcosa nel processo di creazione, qualcosa che non sapeva prima di sedersi.

Schizofrenia

Anche se tessuta con fatti ed atti e ricerca del vero, la letteratura non rispecchia la realtà. Ogni romanzo crea il suo mondo, che resta riflesso come immaginario attraverso la fantasia e l'esperienza dell'autrice o autore.

Ma il fatto è che c'è un altro mondo, il mondo reale, quello vero, che ogni mattina ci schiaffeggia dai giornali ed è difficile sapere che rapporto instaurare con quel mondo reale, come innestare il mondo reale e il mondo immaginario: Perché difficile? Perché i due mondi si scontrano, perché il mondo reale è doloroso, perché abbiamo dei pregiudizi sulla letteratura realista, perché vogliamo toglierci di dosso le stigmate dell'impegno, come dire, perché la letteratura sempre letteratura è e mica la possiamo far diventare reportage giornalistico.

Da qua la schizofrenia. La schizofrenia sorge non poche volte durante il processo di creazione. Sorge, innanzitutto, quando diventando narratori "scegliamo" - oppure siamo scelti da - una voce altra da quella dell'autrice.

E' un processo schizofrenico, per esempio, entrare nella pelle di personaggi contrapposti e vivere, lo scrittore, le situazioni da loro vissute. L'autore fa un esercizio di trasformismo profondo quando diventa personaggio (il "c'est moi" di Flaubert), l'unico modo per rendere il personaggio credibile.

Schizofrenia d'altra parte è pretendere che l'autore sia isolato dal suo ambiente e che i fatti della sua epoca non lo riguardino. A meno che l'autrice non sia autistica, se dispone della sensibilità nota a tutte le creatrici, l'influenza dell'ambiente si farà sentire nel suo lavoro. Ancor di più. Sarebbe preoccupante se non apparisse proprio. Una schizofrenia rischiosa addirittura.

Ognuna vive le sue follie e se parliamo di creazione questo è ancor più vero. La scrittrice vive follie individuali e collettive. La follia dell'epoca lascia traccia sul lavoro artistico, una traccia diciamo consentita dall'autrice, oppure sfuggita a questa.

L'era del colera

Tutte le generazioni di scrittori baschi hanno vissuto in epoche di colera e la letteratura basca (almeno fino a poco tempo fa) non ha rispecchiato un bel niente. Gli scrittori si sono rivolti al passato oppure hanno situato la narrazione nell'infanzia o hanno creato geografie immaginarie; sono stati, in certa misura, vie di fuga pur di non affrontare il presente fisico e temporale. E come affrontare il disagio, come descrivere il volto del colera senza esplicitare se ci piace o meno?

Gli scrittori e scrittrici basche hanno saputo parlare dell'argomento senza parlare, descrivere l'orrore Conradiano senza mai pronunciare la parola orrore.

Il fatto è che l'epoca del colera non finirà a breve e gli scrittori e le scrittrici, intanto, non smetteranno di scrivere. In un modo o in un altro, dovranno imparare a vivere nel nido del colera. E, comunque, a scrivere.

Laura Mintegi

come detto, sono appunti per una conferenza

NOLA ETA ZER IDATZI KOLERAREN GARAIAN

2007 Eromako euskal asterako Hitzaldi baterako zenbait apunte labur

Talaia

Garai batean sarri entzuten zen literaturan abenturak kontatzea baino interesagarriagoa dela kontatzearen beraren abentura, hau da, itsasoan abiatzea portura helduko garen ala ez axola gabe, zeren, uste horren arabera, inportanteena ez baita portura heltzea baizik eta nabigatzea.

Ideiak badu xarma, xarma duten bezalaxe malenkoniak, tristeziak eta porrot egiteak. Horiek guztiak oso emankorrak izaten dira nobelagintzan, baina antzuak ere bai. Noraezean ibiltzea, untxi holandarraren edo judutar alderaiaren moduan, erakargarria da iparririk gabe sentitzen direnentzat, erraza baita identifikazioa. Baina nekez lagunduko dio inori inongo portura heltzen. Are gutxiago ez baldin badaki zein portutatik abiatu den.

Egitan garrantzitsuena ez da ez portura heltzea ezta nabigatzea ere, baizik eta jakitea zein portutik abiatu garen, zein den gure talaia, nor den mintzo dena, norena den munduarekiko ikusmira. Horretan datza interesa.

Nobela edozertaz mintza daiteke. Literatura konprometitua egiteko ez da beharrezkoa orrialdeak komandoz eta ekintza armatuz betetzea; halaber, emakume-literatura egiteko ez dago beharrik amatasunaz edo hileroko kontuez jarduteko. Egilea edozein gaiz mintza daiteke, edozein tonutan, edozein anekdotaren bidez, baina beti ere jakinik nor den bera, zein den beraren talaia. Eta horrek ematen dio interesa lanari, egilearen begiradak. Munduarekiko ikusmira da idazle bakoitzak egin dezakeen ekarpen behinena.

Istorkoak asmatu arren, zientzia-fikzioa egin arren, bere begiradarekin zintzo jokatzen duen literaturak ez du gezurrik esaten. Literatura fikzioa da, baina ez da simulakroa. Asmatuak da, baina ez da gezurra. Idazleak asma dezake, baina bere burua engainatu ezean, egia kontatzen du.

Horixe izaten da denboran irauten duen literatura, egiaren bila abiatu izan dena, egileak bere egiaren bila jardun duelako, bere buruari gezurrik kontatu ez diolako, idazkera automatikoa albo batera utzi duelako, eta ez delako konformatu idatziz bakarrik alde aurretik zekien hura. Idazleak, bidaia horretan, idaztearekin batera deskubritu du bidea. Aulkitik altxatu bakoitzean antzematen du zerbait ikasi duela sormen-prozesuan, aulkian jarri aurretik jakin ez zekiena.

Eskizofrenia

Egiaren bila aritu arren, egitatez josirik egon arren, literaturak ez du zertan errealtatea islatu. Nobela bakoitzak bere mundua sortzen du, irudimenaren eta esperientzien bidez egileak sortu duen imajinarioa nobelan gelditzen da islatuta.

Kontua da badagoela beste mundu bat, mundu erreala, egiazkoa, egunkarietan agertu eta goizero muturrean kolpatzen gaituena, eta zaila izaten da jakitea nola jokatu mundu erreala horrekin, nola uztartu mundu erreala eta imajinarioaren mundua: Zergatik zaila? Ba, mundu biek talka egiten dutelako, mundu erreala mingarria delako, literatura errealistaren gainean aurreritziak ditugulako, konpromisoaren estigma uxatu nahi dugulako, enfin, literatura literatura delako, eta ezin dugulako bihurtu kazetaritza erreportaia.

Hortik eskizofrenia. Eskizofrenia une askotxotan sortzen da sormen prozesuan zehr. Sortzen da, hasteko, egilearena ez den beste ahots bat “aukeratu” egiten dugunean (ez dakit noraino aukeratzeko dugun edo aukeratzeko gaituen) narratzailearena egiteko.

Prozesu eskizofrenikoa da, esaterako, pertsonaia kontrajarrien larruan sartzea, eta haiek bizi duten egoera idazleak aurretik bizi izatea. Transformismo ariketa sakona egiten du egileak pertsonaia bihurtzen denean (“*c’est moi*” flaubertiarra), modu bakarra baita pertsonaia sinesgarria izan dadin.

Bestalde, eskizofrenia da pretenditzea egilea beraren inguruetik isolatuta dagoela eta garaiko gorabeherak eragiten ez diotena. Egile autista ez bada, eta sortzaile guztiei ezagutzen zaien sentiberatasuna baldin badu, ezinezkoa izango da ez somatzea ingurukoaren eragina egilearen lanean. Areago. Arduratzekoa litzateke zantzurik ez agertzea. Eskizofrenia arriskutsua alegia.

Kolera garaia

Nor bere zoroak bizi du, eta sorkuntzaz ari garela egiagoa da esaldia. Zoro indibidualak eta zoro kolektiboak bizi du egilea. Garaia zoroak arrastoa uzten du artelanean, arrasto kontsentitua edo, bestela, egileari ihes egiten dion aztarna.

Euskal idazle belaunaldi guztiak bizi izan dira kolera garaian eta euskal literaturak ez du ezer islatu (orain gutxi arte behinik behin). Idazleek iraganera jo dute, edo haurtzaroan kokatu dute narrazioa, edo geografia imajinarioak sortu dituzte; ihesbideak izan dira, finean, orainari eta hemengoari aurre ez egiteko. Eta nola egin aurre ezinegonari, nola deskribatu kolera aurpegia, adierazi gabe berau gustatzen zaigun ala ez?

Euskal idazleek jakin izan dute gaiak mintzatzen mintzatu gabe, horre conradiarra deskribatzen, horre hitza behin ere ahoskatu gabe.

Kontua da kolera garaia ez dela epe laburrean amaituko eta idazleek, tartean, ez diotela idazteari utziko. Nola edo hala ikasi beharko dute kolera habian bizitzen. Eta, hala ere, idazten.

